

Authentik-en esperientzia*

J. Morla / S. Feerick

Aste beteko epe motzean egunkari bat berregin, magazine soinoduna moldatu eta bi gida pedagogiko lagungarri asmatzea, horra hor joan deneko bost urte edo gehiagotan Irlandako Hezkuntza Ertainetako irakasle-talde baten urtean zazpi alditako desafioa, hizkuntz arduradun frantses eta Dublingo Trinity College-ko talde pedagogikoaren laguntzarekin burutzen dutena.

Egunkari bat eta kasete bat irakasleek irakasleentzako asmatua. «Muntaian» kazetaritza frankofono (idatzi zein irratizkotik) 15etik 19ra urteko gazteentzat deigarri izan daitezten aterakinak aurkezten dituzte. Denak batean edo banan-banan erabiltzeko modukoak.

Bi gida pedagogiko ateratzen dira kasete eta egunkariaren lagungarri. Bilduma batzuetan oinarrituta, ikasgelan taldean edo norberak lan egiteko iradokizunak eskaintzen dituzte, hizkuntz ariketa eta ekintz multzoa, maila eta klase diferenteetako ikasleei laguntzeko.

Hilero egiten dira saio pedagogikoak leku batean eta bestean, eta eskualde desberdinetako irakasleek ikasgelan berehala probatzen dituzte; baita, behar izanez gero, aldatzen diren ariketak prestatu ere.

Hilero biltzen da idazkaritza-batzorde bat, aurreko hileko magazineta proposatutako ariketen emaitzak jaso eta analisatzen dituena. Egindako proposamenen metodo-

logia berraztertzeo aukera ematen duen ebaluazioa egiten da, probetxu gutxikoa dirudiena baztertuz (askotan ustegabeak ere gertatzen dira) eta egindakoa erabiltzaileen erreakzioen arabera modulotan banatuz.

- **Hiru sarrerako lana, ikasleak, irakasleak eta hauen formatzaileak inplikatzeko dituenak. Zenbait soluzio eta arazo asko.**

Lehenengo helburua: ikaslea ama-hizkuntzako egunkari idatzi edo ahozkotik ahalik eta hurbilen dagoen «magazine» bat irakurri eta entzuteko motibatzea. Horretarako, gure ustez, segurantzia eman behar zaio frantsesez eskaintzen zaion informazio-piloaren aurrean. Ikuspegi honetatik begiratuta, sekulako garrantzia du artikulua irakurri edota irratizko informazioa entzun aurretiko prestaketa-lanak.

Era berean, «magazinea» bi helbururekin erabiltzen dela kontuan eduki behar da: alde batetik, bakarka irakurtzeko eta, bestetik, klaseko lanerako apunte gisa. Bi ardatz di-

* Frantsesez «L'expérience d'Authentik», *Le Français dans le Monde* (203. zenb. - 26, Rue des Fossés Saint Jacques - 75005 Paris) aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua.

Navette: le rêve foudroyé

SPECIAL ESPACE



LES FRANÇAIS ONT VU EN 1968 LA PREMIÈRE NAVETTE SPATIALE MONDIALE. C'ÉTAIT LE 28 MARS 1968, À 12 H 02. À CE MOMENT, UN FUSÉE AEROSPATIALE DE TYPE SP7, MONTÉE SUR UN VÉHICULE LANCEUR AEROSPATIALE (VLA), A ÉTÉ LAUNCHÉE EN HAUTE ALTITUDE. C'EST LA PREMIÈRE NAVETTE SPATIALE MONDIALE. C'EST LA PREMIÈRE NAVETTE SPATIALE MONDIALE.

« Je dirais qu'elle n'est pas trop coopérative... »



Ils ne parlent que de ça

La télé du bout du monde

Observateur



« Ça va-t-il encore durer ? »

« Ça va-t-il encore durer ? »

Le Puy: du plomb dans les tortilles

Au 47 de la rue Pennesac, dans un vieux quartier du Puy, il n'y a que des logements insalubres. Ils sont tous occupés par des Marocains. Sauf un, habité par un Français, Charles Mandon, cinquante-neuf ans, invalide, qui loge au 3^e étage en compagnie de ses deux enfants, Charles Mandon ne supporte pas ses voisins maghrébins. Il les trouve trop bruyants. Il les pancarte « Ne pas faire de bruit à partir de 22 heures ». C'est à sa demande que la règle de l'immeuble l'a apposée. Pourtant, jeudi dernier, il n'est pas encore 22 heures lorsque Charles Mandon est excédé par ses voisins du dessous. Au second étage, toute une famille marocaine est réunie, la famille Hachoui, en tout une vingtaine de personnes à faire la fête dans leur petit quatre-pièces. Fou de rage, Charles Mandon ne tolère plus un tel bruit. Il veut leur régler leur compte. C'est d'abord le fils âgé de dix-sept ans et demi, une arme à la main, qui descend pour leur ordonner de faire moins de bruit. Pris à part, désarmé, le fils se bat avec un des Marocains qui lui casse le nez. Après cette altercation, Charles Mandon est descendu avec son fils, tous les deux armés de fusils de chasse. Bilan: deux morts et cinq blessés dont deux graves (l'un à la main arrachée, l'autre est dans le coma). Crime raciste ou querrelle de voisinage? Après le drame, toute la ville est en état de choc. Le Puy, 35 000 habitants,

compte quelque 1 500 travailleurs d'origine arabe. Ces derniers temps, on n'avait relevé aucun incident entre les deux communautés française et marocaine. Pourtant, depuis le double meurtre, la tension est vive, la communauté marocaine a défilé vendredi dernier dans les rues de la ville. « Ça devait arriver avec tous ces Arabes, lance un chauffeur-livreur, avant d'ajouter: Le meurtrier, il faudra le décocher. Quand il sortira de prison, je lui rembourserai ses cartouches ». Le Puy découvre le racisme. J.-P. M.

■ Tel est le récit envoyé par l'un de nos correspondants au Puy. Il ne nous diffère guère des premiers résultats de l'enquête. Sans les attendre, le Figaro, sans doute pour se déculpabiliser des campagnes « Halte à l'immigration », accordé exceptionnellement toute sa dernière page à ce triste fait divers. En en ajoutant des tonnes sur les détails et les justifications. C'est ainsi que les vingt personnes rassemblées chez les Hachoui deviennent trente-huit, que les quatre pièces ne sont que deux, que le fils Mandon est « maître, désarmé, bousculé, molesté » et que son père « n'a même pas songé qu'il risquait d'attendre son fils à l'intérieur », etc. Bref, un cas typique de légèreté défensive. Pour le Figaro, finalement, le coupable est « S.O.S. Racisme accusé d'avoir récupéré l'affaire ». Et pourquoi pas de l'avoir organisée?

AUTHENTIK

Authentique en français

Mars 1986

Vol. 6, No. 5

PHILIPPINES:

Cory décrète l'amnistie

Sera-t-elle suivie Par l'armée?



« Cory décrète l'amnistie »

« Cory décrète l'amnistie »

tuzte, beraz, ariketek: banakako aurkikuntza eta talde-lana; eta bi xede: aldi berean hizkuntza eta zibilizazioa bereganatzen laguntzea. Alferrikako komentariotan aritu gabe eta lanaren muestra arrunt bat azaltzeko us-te eta gogo bakarrekin, *Authentik*-en gida pedagogiko, ariketa eta ekintza batzuren zenbait muestra besterik ez dugu emango hemen. Tipologi modu bat ondorioitzeko eran zerrendatu eta azaldu ditugu. Izan ere, «magazinetan» (idatzi zein hitzezkoetan)

ariketak ez dira isolaturik ematen, «unitate didaktiko» txikitari baizik, hizkuntzaren alderdi guztiak garatzeko asmoz. Horrela lantzen dira: ezagutzen lorpena (hizkuntza-ren jakintza), eduki sozio-kulturalen norbereganatzea (informazioak), lorpen berri horiei buruzko erreakzioak, egunkarietan berriak emateko moduei eta egunkarietako zenbait arauri buruzko gogoeta «metakazetaristikoak».


- **IRAKURTZERA PRESTATU EDO «AURRE-ULERTZEA»**

- **Atzeman**

Begiratu ongi 2. orrialdeko titulu handiei, «GAURKOTASUNAREN ILDOTIK», («MUNDUAN ZEHAR»), eta gogoan hartu hor azaltzen diren herrialdeak:

1.
2.
3.

Entzun oso-osorik Hego-Yemeni buruzko orrialdea eta idatzi azpiko mapa honetan ulertu izan ahal dituzun lurraldeak eta horien izenak.



- **Berregin**

Ikus lehengo orrialde hura bera eta azpiko titulua berregin eta esan zein lurraldez ari den.

gertatu * lehendik * sarraskia * arduradunek * koheteak * beldurra * huts egin * bazuten * ere


• **Sailkatu**

Sailkatu 4. eta 5. orrialdeetako «gertaerak» motaz mota, tituluetatik ondorioztuz.

istripuak ----- -----	lapurretak ----- -----	erahilketak ----- -----
erasoak -----	inuzurrak -----	beste -----

• **Girotu**

Le Pointeko «Konpromezu historiko baterantz» irakurri aurretik, bost minutu dituzu Ipar-Irlandak burura dakartzazun hitz guztiak idazteko.



*Nouvel Observateur*eko «Munduaren azken muturreko telebista» artikuluari **ekin aurretik**, pentsatu telebistari gabeko herri batean bizi zarela. Nola pasatzen duzu ilunabarra? Ikastaldea bitan banatzen da: telebistaren aldekoak eta aurkakoak. Talde bakoitzeko kideek telebista etxean edukitzearen ala ez edukitzearen abantaila eta alderdi txar guztiak zerrendatuko dituzte. Eztabaidakoan klasearen zati bat «epaile» izango da irabazle nor den erabakitzeko. Ondo aritu!

• **ONDO ULERTU DELA EGIAZTATU**

• **Informazioa ezagutu**

«**Challengerren leherketa**» artikulua irakurri duzu. Honako esaldiotan aukera ezazu informazio zuzena ematen duena.

* Jendea, istripua gertatu eta lehenengo momentuan, geratu zen:

- zur eta lur
- trajediak txundituta
- teknikarien kaikukeriarekin haserre

* Espazio-ontziko taldearen egitekoa zen:

- ohizko hegaldi arrunt bat burutzea
- komunikazioetarako satellite handi bat eta zunda Halley kometaruntz bidaltzea
- Halley-ren inguruan zeuden satellite eta zunda bat jasotzea

* Espazio-ontzia lehertu zen:

- atzera-kontuaren azkenaldera
- jaurtiki eta 74 segundotara
- abiatu baino lehenxeago juxtu-juxtu

* Argazki-makinak zirt eta zart ari zirela esateak adierazten du:
 - argazki-makinek su hartzen zutela
 - leherketak desegin zituela
 - argazki asko egin zutela

Le Pointek Irlandari buruz dakarren «Konpromezu historikoa» **irakurri duzu**. Esazu honako informazio haueetatik zeintzuk diren egiazkoak:

- Garret Fitzgerald eta Maggie Thatcher-ek aurre egin nahi zien hiltzaileei
- Eamon Hanna-k dioenez, Londresek ez du onartuko Ipar-Irlandan bi komunitate izaterik
- IRAk uste du bera dela oraingo elkarrizketaren arduraduna
- Partidu Ofizial Elkartzalea ez dago batere gogoberoz
- Umeek oraindik ere Ingalaterrako soldaduei harri tiraka jarraitzen dute
- Thatcher-ek ez du Irlandari buruz pentsakera finkorik
- IRArentzat Bobby Sands ez da jada heroea

• **Informazioa bilatu**

Maurinen herriskara **telebista heldu da**. Hiru etapatan iritsi da. Irakurri «Munduaren azken muturreko telebista» eta esan zeintzuk diren etapa horiek.

.....

.....

.....

Identifika itzazu artikuluan aipatzen diren pertsonaiak; norik bere erreakzioak ditu:

Izena:.....

Erreakzioa:

Eskuina eta ezkerra. Irakurri artikulua eta A laukia bete «familia» politiko bakoitzaren ezaugarriak idatziz.



Izena:

Erreakzioa:

	Gizona	Andrea	Umeak	Animaliak	Etxea
Ezkertiarra	-----	-----	-----	-----	-----
Eskuindarra	Traje grisa edo urdina	-----	bi (10 eta 15 urtekoak)	-----	-----

• Informazioak konparatu

Ezkerra/eskuina. Artikulua irakurri ondoren, beha beheko bi marrazki hauek. Zein familia da ezker-tiarra eta zein eskuindarra? Aurkitu irudietan artikuluan aipatzen diren desberdintasunak.



Gertaera bat bera bi eratan. *Le Pointen* («Le Puy: du plomb dans les lentilles») eta *Le Quotidienen* («Carnage pour un tapage»). Konpara itzazu beheko B laukiaren laguntzaz: azpimarra testuko hitz zehatzak.

Osteguneko gertaera	Lekua	Le Quotidien: etxebizitza txiki zahar eta zaratatsua
.....
.....	Gertatutakoa
.....
.....	Arrazoiak
.....
.....	Hachauitarren bertsioa
.....
.....	Mandondarren bertsioa

Challengerren leherketa. Irakurri istripuari buruzko beste bertsio hau. Eta konparatu bi artikulua, «poza» eta «etsipena» ardatz direla.

«Routine», disait-on ... Et, de fait, tout avait bien commencé, Techniciens, spectateurs, familles des sept voyageurs de l'espace avaient le sourire. Le temps était superbe sur Cap Kennedy. Challenger, conformément aux ordres reçus du sol, avait effectué son demi-tonneau habituel, comme au cours des vingt-quatre précédents lancements. Vitesse ascensionnelle: 2240Km/h. Puissance maximale. Angloisés malgré l'optimisme ambiant, les parents du «petit prof de l'espace» et la soeur de Christa McAuliffe assistent au décollage. Tout est OK! ...

...et soudain, c'est l'effroi, après quelques instants d'interrogation. Que se passe-t-il? Cette explosion? Les fusées d'appoint qui se détachent? ... Hélas! Challenger et les sept cents tonnes d'oxygène que ses flancs recélaient viennent de se désintégrer. L'horreur! Les sept astronautes foudroyés entre ciel et terre. Les parents, la foule, le fils et les jeunes élèves de Christa crient leur douleur, leur désespoir.

• **Hiztegiaren ezagutza kontrolatu**

Eskuina/ezkerra. Itzuli esaldi hauek frantses arruntera.

- * C'est elle qui porte la culotte.
- * Pas réaliste pour un sou.
- * Pas de poêle Tefal dans la cuisine, ça fait pas écolo.
- * C'est une petite panoplie du chic bon ton.
- * Elle a le style baba cool attardé.

Ipar-Irlanda («Konpromezu historikoa»)

Aurki itzazu honako hitz hauen parekoak:

- | | |
|---------------------------------|-----------------------|
| – erahila izan da | – aldi bat |
| – goi-mailako bilera historikoa | – bozeramaile |
| – desafioa | – saboteatua izan zen |
| – amore eman | – saiatu zen |
| – taldetxar | – traizio bat |

Challengerren leherketa

Aurkitu testuan honako hauei dagozkien hitzak:

- | | |
|----------------------|------------|
| – ikutuz | – su hartu |
| – berehala | – gasolina |
| – hasi | – aldatuz |
| – ikusmiran zeudenak | – puskak |
| – harrituta | – makina |
| – eduki | – antolatu |


«Gogoz kontra eskimal»

Entzun berriro bizirik atera zenak nola kontatu zuen gertatutakoa irratian. Gero irakurri ondoko esaldi hauek. Gauza bera diote, baina beste hitz batzuekin. Aurkitu irratiko kontakizun ondoko hauei justu-justu dagozkien hitzak:

- eguraldi ederra zen
- ez zen ia ezer ikusten
- aurretik genituen eskialariak gu baino azkarragoak ziren
- galduta geundela konturatu ginenean
- gure senarrek berek prestatu zituzten
- iluntzen hasia zen
- lorik ez egin

- **ULERTZEKO, AURREA HARTU**
- **Daukagun informazioa gogoratu**

Challengerren leherketa. Artikulua irakurri aurretik saiatu honako eskema honetan Challengerraz dakigun guztia biltzen. Gero artikulua irakurri eta eskema osatu.



Eskuina/ezkerra. Artikulua irakurri aurretik, erantzun honako galdera hauei ingelesez (ikasleen ama-hizkuntza ingelesa bait da):

Dix questions sur les élections:

- * Who will be elected on the 16th of March?
- * Who finances the different political parties in France?
- * Why was it decided to change the French electoral system in 1985?
- * What does «cohabitation» in the context of the elections results mean?
- * What will happen, should the majority of deputies be hostile to the President?
- * What reforms are proposed by the opposition parties? What do the Socialists emphasize in their campaign?
- * Are there any differences among the right-wing parties in their attitude to «dénationalisation»?
- * Would a change in government affect the relations between France and other countries?
- * Who is Jean-Marie Le Pen and what does he represent?
- * What position does the Parti Communiste now find itself in?

- **Kalkulatu edo irudikatu artikulu batean emateko informazioa**

Honako **titulu** hauek 86ko martxoko «magazinetik» atereak dira.

- Egin begiratu bat eta esan zein rubrikapean sailka daitezkeen. «Argiak» iruditzen al zaizkizu?
- Bièvre-ko gaua
- ez ikutu nire autoa

- zazpi urteko moto-lapurra
- eskimal gogoz kontra
- haginlariak bere andrea edendu egin nahi zuen
- 300 milioi edo hil egingo dugu
- Ondoren, bereziki deigarri gertatzen zaizuen bat aukeratu. Esan zergatik. Estiloagatik? Edo hiztegiagatik?
- Gero, titulu horrek iragarritako artikulua irakurri aurretik, «irudika ezazue» taldeka artikulua hori eta idatzi.
- Azkenik, irakurri artikulua egunkarian eta ea zuenaren antzik baduen.

«Gaurkotasunaren ildotik »

- Titulu nagusietatik abiatuz eta artikulua irakurri gabe, igari taldean titulu horiek iragartzen duten edukia.
- Ustezko eduki horretan oinarrituz, idatzi «miniartikulu» batzuk (berri laburrak).
- Konparatu gero zuen idazkiak egunkaritakoekin, ondoan dituzun lauki hauek betez.

Nire artikulua	Titulua	Egunkaria
-----	Lurraldea	-----
-----	Gertaera	-----
-----	Partaideak	-----
-----	Jarraipena eta ondorioak	-----

«Gogoz kontra eskimal»

- Urtarrilean iratiak eta egunkariak Alpeetan lau eskialarik izandako abenturaren berri eman zuten.
- Ondoko hitz haueetatik abiatuz eta ezer irakurri eta entzun gabe, irudika zer gertatu zen eta idatzi zuen kontakizuna

lo egin
 esna egon
 handik alde egin
 leku hartan
 jauzia
 elur-lausoa
 gaua
 iglooa
 helikopteroa
 lainoa
 bizirik
 moztu

mendia
 neguko kirolak
 - 30 °
 pistak
 eskialariak <4>
 eskiak
 elurrezko blokeak
 arriskua
 hozkailudun
 hozkailua
 galdu
 eraiki

- Entzun ondoren irratiko erreportaia eta irakurri *Le Matineko* artikulua. Konparatu elkarrekin gertatutakoaren hiru bertsioak, honako lauki honen laguntzaz.

	Zure bertsioa	Irratia	Egunkaria
----- Gertakizunaren aurretikoak (lekua, ordua, eguraldia)	-----	-----	-----
----- Nola iritsi ziren hartu zuten erabakia hartzera?	-----	-----	-----
----- Itxoinaldia	-----	-----	-----
----- Gertatutakoa eta amaia	-----	-----	-----

- **IRAKURRI DENAZ HITZ EGIN**
- **Artikulu baten edukiaren aurrean erreakzionatu**

Ipar-Irlanda «Konpromezu historiko bateruntz». Idatzi eskutitz bat *Le Pointera* artikuluaaren aurrean erreakzionatuz.

- **Arazo baten aurrean jarrera hartu**

Challengerren leherketa... «Espazioaren hartzea afferrikakoa da». Erreakzionatu (antolatu idazki bat, eztabaida bateko zeure jarrera laburbilduz).

Itzultzailea: Boni Urkizu

EL PROYECTO AUTHENTIK

El contacto vivo con la lengua objeto de estudio constituye, por razones de índole intelectual y motivacional, una de las condiciones fundamentales para que se produzca su aprendizaje.

El proyecto de «prensa pedagógica» Authentik se ha convertido desde hace ya varios años en un magnífico instrumento cuya razón de ser es el fomentar

ese contacto vivo. Editado siete veces al año gracias al esfuerzo entusiasta de un grupo de profesores de idiomas, estos son sus componentes característicos:

- magazine periodístico y guía pedagógica;
- magazine radiofónico y guía pedagógica.

El artículo de Morla y Feerick pretende tan sólo acercarnos al proyecto.

THE AUTHENTIK PROJECT

The living contact with the language object of study constitutes, for reasons of intellectual and motivational nature, one of the basic conditions for its learning. The Authentik project for a «pedagogic press» has become, since a few years back, a magnificent instrument whose reason of being is the encouragement of that living contact. Edited seven times a year, thanks to the en-

thusiastic effort of a group of language teachers, these are its characteristic components:

- journalistic magazine and pedagogic guide.
- radiophonic magazine and pedagogic guide.

The article by Morla and Feerick only intends to bring us near the project.

LE PROJET AUTHENTIK

Le contacte vif avec la langue objet d'étude constitue, par des raisons de genre intellectuel et de motivation, une des conditions fondamentales pour que se produise son apprentissage.

Le projet de «presse pédagogique» Authentik s'est transformé depuis quelques années en instrument magnifique dont la raison d'exister est l'encourage-

ment de ce contact vif. Edité sept fois par an grâce aux efforts enthousiastes d'un groupe de professeurs de langues, voici ses composants caractéristiques:

- Magazine journalistique et guide pédagogique.
- Magazine radiofonique et guide pédagogique.

L'article de Morla et Feerick prétend, tout simplement, nous approcher du projet.